HERNANIKO UDALAREN hizkuntzazko irizpideak

Gudarien plaza, 1 – Tel.: 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

AURKIBIDEA

1. PRINTZIPIO GIDARIAK eta LEGE OINARRIA

1.1 PRINTZIPIOAK 5

1.2 LEGE OINARRIA 7

2. KUDEAKETA

2.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA 8

2.2 LIDERGOA 8

2.2.1 Udal ordezkariak

2.2.2 Langileak

2.3 HIZKUNTZA GAITASUNA 9

2.3.1 Langile finkoak eta aldi baterako kontratatuak

2.3.2 Hautaketa-probak

2.3.3 Euskararen komunikagarritasuna frogatzea eta ebaluatzea hizkuntza eskakizunak eskatze aldera.

2.4 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA ...12

2.4.1 Hizkuntza klausulak

2.4.1.1 Kontratu publikoetan

Zerbitzu kontratuak

Horniketa kontratuak

Obra kontratuak

Besterik

2.4.1.2 Dirulaguntza eta hitzarmenetan

2.4.1.3 Baimenetan, onarpenetan

2.4.2 Hizkuntza inpaktuaren ebaluazioa

3. ERABILERA. ZERBITZU HIZKUNTZA

3.1 IRUDIA 17

3.1.1 Udalaren errotuluak eta ikus-entzunezkoak

3.1.2 Argitalpenak —gida, aldizkari, katalogoak...— iragarkiak, eta publizitatea

3.1.3 Agerraldi instituzionalak eta prentsaurrekoak

3.1.4 Web orria eta sare sozialak

3.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK 20

3.2.1 Ahozko harremanak

3.2.2 Idatzizko harremanak

4. ERABILERA. LAN HIZKUNTZA

4.1 BARNE HARREMANAK 23

4.1.1 Lankideen arteko ahozko harremanak

4.1.2 Lan bilerak

4.1.3 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

4.1.4 Udal barruko idatzizko komunikazioak

4.1.5 Prozedura administratiboak abian jartzeko hizkuntza

4.1.6 Eskritura publikoak

4.1.7 Xedapen orokorrak

4.2 KANPO HARREMANAK 24

4.2.1 Sektore publikoekiko erakundeekin ahozko harremana

4.2.2 Sektore publikoekiko erakundeekin idatzizko komunikazioa

4.2.3 Enpresa pribatuekin ahozko harremana

4.2.4 Enpresa pribatuekin idatzizko komunikazioa

4.3 PRESTAKUNTZA 26
4.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK 26
4.5 SORTZE HIZKUNTZA 26
4.5.1 Zuzenketa eta itzulpen irizpideak

5. ERANSKINAK

5.1 Laburpen taula 29
5.2 Zerbitzu kontratuetarako hizkuntza baldintzak 31
5.3 Horniketa kontratuetarako hizkuntza baldintzak 35
5.4 Obretarako hizkuntza baldintzak 36
Proiektuen idazketarako hizkuntza baldintzak
Obra zuzendaritza bakarrik kontratatzeko hizkuntza baldintzak
Hirigintza-dokumentuen entregarako hizkuntza baldintzak
5.5 Dirulaguntza/hitzarmenetarako hizkuntza irizpideak 38
5.6 Herritarrekin egiten diren jardueretarako hizkuntza irizpideak 39
5.7 Bide seinaleetako eta kale errotulaziorako hizkuntza irizpideak 41

HIZKUNTZAZKO IRIZPIDEAK

2023-2027 epealdian Hernaniko Udalaren jarduna arautuko duten hizkuntza irizpideak dira dokumentu honetan jasotzen direnak. Udalaren barne funtzionamendua, herritarrekiko harremana eta beste herri administrazioekiko harreman-hizkuntza arautuko dute irizpideok, besteak beste. Kemen — Kudeaketa eta erabilera markoa euskararen normalizaziorako— metodologiaren eta eskemaren araberako esparruak dira hizkuntzaren ikuspuntutik arautuko direnak.

1.PRINTZIPIO GIDARIAK eta LEGE OINARRIA

1.1 PRINTZIPIOAK

Euskararen erabilera normala eta orokorra

Euskara Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko hizkuntza eta euskal sektore publikoaren hizkuntza ofiziala denez, Hernaniko Udalak euskararen erabilera gero eta gehiago sustatuko du bai barneko jardueretan baita kanporako direnetan ere. Udalaren jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza da euskara, bai ahoz eta bai idatziz. Eta euskaraz egindako jarduketa guztiek izango dute baliotasun juridikoa. Hizkuntzen erabilera hizkuntza-irizpide hauetan ezarritakoaren araberakoa izango da.

Herritarren hizkuntza eskubideak

Herritarrek Udalarekin harreman guztia haiek hautatutako hizkuntzan izateko duten eskubidea bermatuko da. Herritarren hizkuntza eskubide eta betebeharren erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sor daitezen hizkuntza politika ezarriko da. Oinarrizko printzipio horretatik ondorioztatzen da hizkuntza-eskubideak herritarrenak direla, eta ez botere publikoenak; beraz, Hernaniko Udalari dagokio eskubide horiek errespetatzea eta betetzen direla bermatzea. Udalaren betebeharra da eskubide horren erabilera bermatzea, langile publikoek herritarrei eskaintzen dieten zerbitzuaren bidez gauzatzen dena.

Ekintza positiboaren printzipioa

Udalak neurriak hartuko ditu euskararen erabilera mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, bai eta euskararen erabilera kaltetzen duen edozein bereizketa, bazterketa, muga edo justifikaziorik gabeko lehenespena ere ezabatzeko. Euskararen alde hartzen diren neurri bereziak – euskaldunen eta beste hizkuntza ofizialaren hiztunen artean berdintasuna sustatzeko eta euskaldunen egoera bereziak kontuan hartzeko– ez dira joko espainieraz aritzen direnak baztertzeko egintzatzat.

Hizkuntza propioaren aldeko ekintza argiak abiaraztea, hizkuntza aniztasuna sustatzea

Udalak arian-arian gero eta gehiago erabiliko du euskara udal barruko eta administrazioen arteko harremanetan, sektore publikoko langileen artean eta herritarrenganako zerbitzuan.

Atzerapausorik ez

Aurreko plangintzen aldean, ez da atzerapausorik emango hizkuntza irizpideen inplementazioan.

Euskarak lehentasuna

Euskarari lehentasuna emango zaio, bai ahozkoan eta bai idatzizkoan. Beste hizkuntza batzuetan egin behar denean ere lehentasuna emango zaio euskarari, euskaraz sortuko da, eta ahal den guztietan, euskarazko eta beste hizkuntza batzuetan egindako idatziak bereiziko dira.

Diskriminaziorik gabeko hizkuntza

Hizkera inklusiboa eta ez-baztertzailea erabiliko du Udalak irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta baita beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituen dokumentu eta euskarrietan ere.

Kalitatezko komunikazioa

Hernaniko Udalak kalitatezko komunikazioa sustatuko du, estilo zuzen, egoki eta ulergarrian, herritarrek mezuak ahalegin handirik gabe ulertzeko eskubidea dutela jakinda.

Udala, arnasgune funtzionala

Udalaren barne jarduketetan euskara normaltasunez eta modu orokorrean erabiliko da, ahozkoan nahiz idatzizkoan. Horretarako Udalak etengabe hartuko ditu neurriak eta baliabideak jarriko ditu langileak gai izan daitezen lana normaltasunez euskaraz egiteko. Gaur egun udal langile guztiek dute nahikoa euskara gaitasun maila euskaraz lan egiteko; ondorioz, Udala bera arnasgune izendatzeko egoeran dago, Udalaren funtzio guztiak modu orokorrean eta normal euskaraz egiteko baldintzak betetzen direlako. Hori horrela, Udala Hernanin arnasgune izango da.

Helburuak

Hizkuntza irizpideek hiru helburu nagusi dituzte:

1. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea Hernaniko Udalarekin harremanetan jartzen direnean, horretarako behar diren ekintzak bultzatuz eta xede hori eragozten duten oztopoak gaindituz.
2. Euskararen erabileraren aldeko ekintza argiak abiaraztea eta atzerapausorik ez ematea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuta.
3. Hernaniko Udala euskararen normalizazioan eredu izatea.

Eragin eremua

Dokumentu honek, onartzen den momentutik aurrera, Hernaniko Udalaren sail guztiei eragingo die. Hori horrela, sail guztiek jarraipen sistematikoa egingo dute, eta irizpideen betetze-maila aztertuko dute.

1.2 LEGE OINARRIA

Honako lege hauek hartu dira irizpideok egiteko oinarri gisa:

- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, 1992ko azaroaren 5ekoa.
- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.
- 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- 3/2022 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.
- 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 19/ 2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

2. KUDEAKETA

2.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bete daitezen, hizkuntzen kudeaketa Udaleko kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatuta egon beharko da. Hau da, hizkuntzen erabilera kudeatzea Udalak hartutako erabaki estrategikoa da, eta Udalaren erronken artean dago euskararen erabilera sustatzea. Horrenbestez, Udalaren aginte organoetan hizkuntza kudeaketa zeharkakotasunez lantzearekin bat, hizkuntza irizpideen eta Erabilera Planaren jarraipena egiteko lantaldea kide hauek osatuko dute:

-Euskara zinegotzia
-Euskara teknikaria
-UEMAk Hernaniko Udalerako izendatutako ordezkaria
-Hizkuntza normalizatzailea
-Kasuan-kasuan landu beharreko gaiaren arabera, udaleko beste edozein sailetako teknikariak eta ordezkari politikoak

Lantaldearen zeregin nagusiak hauek izango dira:

1. Udalaren kudeaketan hizkuntza irizpideak zenbateraino bete diren neurtzea.
2. Neurri zuzentzaileak proposatzea —behar izanez gero—.
3. Erabilera planaren jarraipena egitea.
4. Planaren helburuak betetzeko ekintzak proposatzea.
5. Planaren helburuak zenbateraino betetzen ari diren ebaluatzea.

2.2 LIDERGOA

2.2.1 Udal ordezkariak

Udalaren hizkuntza politikaren baitan, **udal ordezkariak** —hautetsiak nahiz langileak— eredugarriak, hizkuntza irizpideekin koherenteak izango dira eta hizkuntzen kudeaketa sustatuko dute normalizazio teknikariarekin batera. Udalarekin harremanetan dauden herritarrekin, beste erakunde publikoekin, entitate pribatuekin eta abarrekin euskararen aldeko portaera **proaktiboa** izango dute. Gidaritza emango dute hizkuntza-politikan.

Horretarako guztirako, udal hautetsiek eta udal langileek UEMAren aholkularitza eta laguntza izango dute.

Udalaren hizkuntza politikaren baitan, ordezkari politikoen eginkizuna izango da Udalaren jarduera guztietan hizkuntza irizpideak betetzea eta betearaztea.

Hartara, Udalaren kudeaketarako aginte organoetan hizkuntza ofizialen kudeaketa integratuko da, eta hizkuntza irizpideak zeharkakotasunez landuko dira. Udalaren jarduera guztietan, jarduera horiek gauzatu aurretik hizkuntzaren erabileran eragingo duten faktore guztiak hartuko dira aintzat, eta hizkuntza irizpideak betetzeko neurriak hartuko dira. Nolanahi ere, udal jarduera batek hizkuntza kexak sortzen baditu, Udalak kexa hori jaso eta Euskara Zerbitzuari eta dagokion sailari edo aginte organoari bideratuko dio, Udalaren hizkuntza irizpideen araberako erantzuna eman dezan. Era berean, UEMAri jakinaraziko dio Udalak.

Udalak, legealdi bakoitzaren amaieran, herrian zerrendak aurkezten dituzten alderdi politikoei jakinaraziko die Udalak euskaraz lan egiten duela, eta eskatuko die ahal dela hautes-zerrendetan aurkezten dituzten hautagaiak elebidunak izan daitezela. Agintaldian zehar, entzumenean eta irakurmenean behar besteko gaitasuna ez duten hautetsiak baleude, Udalak euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaroak egiteko aukera emango die.

2.2.2 Langileak

Udal ordezkariei dagokien moduan langileei ere badagokie herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea eta Udalaren hizkuntza irizpideak eta erabilera planak betetzea.

Herritarren aurrean jarrera proaktiboa izan eta lehenengo eta bigarren hitza euskaraz egiteaz gain, herritarren hizkuntza ohituretan eragin handia dauka udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Udalean entzuten den hizkuntza, Udalaren irudia ere bada. Udal langileak euskaraz hizketan aritzeak euskara prestigiatu egiten du. Hori dela eta, udal langileek euren artean euskaraz hitz egin dezaten sustatuko du Udalak.

Bestalde, Euskara Zerbitzuak hizkuntza harrera egingo die kontratatutako langile berriei; hau da, informazioa emango die indarrean dagoen erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, langileek uneoro argi izan dezaten zein den Udalaren estrategia hizkuntzen kudeaketaren alorrean; eta noiz, norekin, zein hizkuntzatan egin behar duten beren lan-jardunean.

2.3 HIZKUNTZA GAITASUNA

2.3.1 Langile finkoak eta aldi baterako kontratuak

Udal langile guztiek lana euskaraz egiteko gaitasuna izango dute.

Lanpostu zerrendan dauden lanpostuek izango dute hizkuntza eskakizuna mintzamenari/entzumenari dagokiona, zein irakurmena/idazmenari dagokiona, eta igarotako derrigortasun data ezarrita.

19/2024ko dekretuak hizkuntza eskakizun asimetrikoak ezartzeko aukera jasotzen du. Udalaren irizpidea izango da hizkuntza eskakizunak simetrikoki ezartzea, idatzizko produkziorik batere ez duten lanpostuetan izan ezik. Lanpostu horietan ahozko gaitasuna baino beheragoko gaitasuna eskatu ahal izango zaio lanpostuari.

Simetrikoak badira:

Irakurmena eta idazmena	Entzumena eta mintzamena
B1	B1
B2	B2
C1	C1
C2	C2

Asimetrikoak diren kasuetan:

Irakurmena eta idazmena	Entzumena eta mintzamena
A2	B1
B1	B2
B2	C1
C2	C1

Udalak lanpostu berria sortzeko erabakia hartu aurretik, Udaleko Antolakuntza eta Pertsonal Sailak Euskara Zerbitzuari eskatuko dio lanpostu berriaren hizkuntza ezaugarrien —hizkuntza eskakizunaren eta derrigortasun dataren— inguruko txostena egin dezan. Hizkuntza eskakizuna lanpostuaren eginkizunak euskaraz egiteko behar den gaitasunaren araberakoa izango da; eta derrigortasun data, berriz, igarota, lanpostua betetzen denerako dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duen langileaz hornitu ahal izateko. Lanpostu batean aldaketaren bat balego, berdin jokatuko da. Erretiroagatik edo beste edozein arrazoi tarteko, derrigortasun datarik gabeko lanpostu bat hutsik geratuz gero, Udaleko Antolakuntza eta Pertsonal Sailak jakinarazi egingo dio Euskara Zerbitzuari, honek hutsik geratu den lanpostuari derrigortasun data esleitu diezaion.

Udalak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailburuordetzari lanpostu horien hizkuntza ezaugarrien inguruko proposamena bidaliko dio Hizkuntza Politikak dagokion aginduzko txostena egin dezan. Txosten hori ez da loteslea izango, eta Udalak izango du azken hitza.

Aldi baterako langileren bat kontratatu behar izanez gero, Udalak lanpostu zerrendako langileei kasuan kasuko betebeharren arabera exijitzen dien hizkuntza eskakizunaren pareko euskara gaitasuna eskatuko die.

Lanpostu zerrendakoa ez den beste lanposturen bat sortu edo hornitu behar den kasuetan, lanpostu horrek dituen funtzioen araberako HE ezarriko zaio, eta langile gaiak lanean hasi baino lehen egiaztatu beharko du baduela euskara gaitasun maila hori. Horretarako, deialdian espresuki zehaztuko da zein den eskatuko den euskara gaitasun maila. Beharrezkoa denean, beraz, Udalak kontratazioa egin aurretik dagokion euskara-proba egingo die izangaiei.

Kontratazio guztietan lan kontratuak euskaraz sinatuko dira.

2.3.2 Hautaketa-probak

a) Lanpostuaren jakite-maila frogatzeari dagokionez

Hizkuntza eskakizuna egiaztatze aldera, APEIren —Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren—, deialdi ohiko eta bereziez gain, nahiz lanpostuari dagozkion eginkizunetan euskara erabiltzeaz gain, hautaketa prozesua euskaraz eginez eta gaindituz ere euskararen jakite maila frogatu eta ebaluatu ahalko da. Hau da, hautatzeko edo betetzeko prozesuetako probek lanpostuaren ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasun maila ebaluatzeko aukera emango dute, baita lan-poltsak sortzeko deialdietan ere. Hautagaiak hautaketa- edo betetze-prozesua gainditzen badu, horren bidez lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko ahozko zein idatzizko komunikazio gaitasun egokia eta nahikoa duela frogatu duen heinean, ulertuko da hautagaiak baduela lanpostuari dagokion HE egiaztatzeko adinako euskararen jakite-maila.

Euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiri jakin bat duen hautagaia, egiaztapen horren jabe izate hutsagatik, ez dago salbuetsia ezagutza hori baduela frogatzeko betebeharretik.

Udalak proben gaineko aholkularitza eta baliokidetza eskatuko dio APEIri. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeari begira bera izango da proben edukia eta forma zehaztu, eta ebaluatuko duena; eta erakunde horren ordezkari bat hautaketa-organoetako kide bat izango da, probak euskaraz egitearen eta gainditzearen bidez egiaztatzen den probetan.

Probaren diseinuan edukia bat etorriko da lanpostuari dagokion funtzioen komunikazio-gaitasunarekin.

Epaimahaikideak izendatzerakoan, kontuan hartu beharko da horien hizkuntza gaitasuna, eta deialdiaren xede diren lanpostuei dagokien hizkuntza-eskakizuna edo handiagoa egiaztatua izango dute.

b) Hautaketa-proben hizkuntzari dagokionez

Hautaketa prozesuan Udalak probetako bat gutxienez, euskaraz egitea eskatuko die hautagaiei.

Hautaketa-prozesuko probaren bat euskaraz eginaraztearen helburua ez da hautagaien hizkuntza maila neurtzea. Eskatutako hizkuntza-eskakizuna egiaztatua badute hizkuntzaren ezagutza orokor hori badutela ulertzen da. Gaitasun eta merezimendu printzipioekin bat etorriz, helburua da baloratzea zer nolako trebezia duten lanpostuaren zereginak egoki burutzeko bere lanean erabili beharko duten hizkuntza horretan.

Udalak, APEIren aholkularitza eta baliokidetza kontuan hartuta, erabakiko du, oinarri bakoitzari dagozkion probak ikusirik, oinarrietan zehaztea zein proba zati izango den euskaraz egingo dena eta gai-zerrendako zein edukiri buruzkoa izango den, orokorrari edo espezifikoari buruzkoa.

Lanpostuak ezarrita duen hizkuntza eskakizunaren arabera erabakiko da proba osoa ala zati bat egingo den nahitaez euskaraz.

Lanpostuak derrigorrezko **C2 edo C1 hizkuntza eskakizuna** ezarrita duenean, ahozko probak euskaraz egingo dituzte hautagaiek. Proba idatzietan proba osoa edo zati bat euskaraz egitea eskatu ahalko die Udalak hautagaiei, betiere oinarrietan jasotzen diren gaitegiak kontuan hartuta.

Lanpostuak derrigorrezko **B2 hizkuntza eskakizuna** ezarrita duenean, elkarrizketa pertsonalean egindako ahozko galderei euskaraz erantzungo diete hautagaiek. Proba idatzietan ariketa praktikoaren eta lanpostuaren ezaugarrietara egokitzen den ikusteko proben erdiak euskaraz egitea eskatu ahalko die Udalak hautagaiei, betiere oinarrietan jasotzen diren gaitegiak kontuan hartuta.

Lanpostuak derrigorrezko **B1 hizkuntza eskakizuna** ezarrita duenean, elkarrizketa pertsonalean egindako ahozko galdera batzuei euskaraz erantzungo diete hautagaiek.

Gainerako probak euskaraz edo espainieraz egiteko aukera emango zaie hautagaiei.

2.3.3 Euskararen komunikagarritasuna frogatzea eta ebaluatzea hizkuntza eskakizunak eskatze aldera

Interesa duen langileak eskatuta, euskararen jakite-maila egiaztatzeko eta ebaluatzeko prozedura hastea eskatu ahal izango dio Udalak Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari hizkuntza-eskakizuna betetzen dela egiaztatzeko lanpostuan euskara erabiliz. UEMAk eskatzailearen inguruan egindako txostena ere helaraziko du Udalak.

2.4 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA

Hernaniko Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatuko die herritarrei eta gainerako interes taldeei —elkarteak, hornitzaileak, enpresa pribatuak...—. Komunikatuko duena ez da soilik izango euskara sustatu nahi duela, baizik eta Udalak erabaki estrategiko bat hartu duela, eta bere helburuen artean euskara sustatzea eta indarberritzea dagoela. Ondorioz, estrategia hori gauzatzera bideratutako tresna eta baliabideen berri emango die herritar eta interes taldeei.

Horrezaz gain, Udalak euskararen erabilera normalizatu eta biziberritzeko beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan hartuko du parte; besteak beste, Buruntzaldean, Udalekin><en, UEMAn...

Udalak euskararen erabilera sustatzeko estrategia adostu eta helburuak ezarriko ditu, baita helburu horiek betetzeko behar diren neurri eta baliabideak ere.

2.4.1 Hizkuntza klausulak

2.4.1.1 Kontratu publikoetan

Udalak egiten dituen kontratuetan beharrezkoak diren hizkuntza klausulak sartuko ditu bai pleguen bidezko kontratazioetan, horiek behar diren kasuetan, edota, kontratuan zehaztuta, pleguak behar ez direnetan, kontratu txikietan esaterako, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jasotzea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak. Beraz, kasuan kasu kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-baldintzak ezarriko ditu Udalak administrazio klausuletan, betiere Euskara Zerbitzuaren aholkularitzarekin. Hizkuntza baldintzek proportzionaltasun-printzipioa bermatuko dute eta kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei egongo dira lotuta. Kontratuetan adieraziko da Udalaren hizkuntza irizpideak bete beharko dituela enpresak.

Kontratua gauzatzeko baldintzetan, Udalaren eta esleipendunaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko alderdiak sartuko dira.

Udalak prestatutako kontratuak euskaraz sinatuko dira, eta, Udalak prestatzen ez dituen kontratuetan, euskarazko bertsioa eskatu eta sinatuko da.

Zerbitzu kontratuak

Kontratua sustatuko duen sailak kontratuaren xedean, preskripzio tekniko moduan, justifikatuko du, besteak beste: kontratuaren objektuan eta zerbitzuaren deskribapenean euskararen garrantzia aipatuko du; kontratatu nahi den zerbitzua hizkuntza helburu espezifikoekin lotuko du; eta zerbitzuaren hartzaileak eta horiek erabilitako hizkuntza nagusia eta zonaldean bertan erabilitakoa zehaztuko ditu. Prestazioa zehaztean kontuan hartuko du langileen euskararen normalizazioak kostua izango duen, bereziki subrogatutako langileen euskara konpetentziari dagokionez.

Kontratua sustatuko duen udal sailaren ardura izango da Euskara Zerbitzuari eskatzea, honek hizkuntza klausulen txostena egin dezan. Bertan hizkuntza baldintzak eta balorazio irizpideak jasoko dira. Hori horrela, kontratua sustatuko duen sailaren eta Euskara Zerbitzuaren artean kasuz kasu aztertuko dute enpresak Euskara Plana edo ziurtagiria izateari esleituko zaion puntuazioa. Hori horrela, Udalak baloratuko du enpresak ba ote duen euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak garatzen ari direla egiaztatzen duen Euskara Planik edo ziurtagiririk — Bai Euskarari Ziurtagiria edo Bikain ziurtagiria (oinarrizkoa,

erdi-mailakoa ala goi-mailakoa)—. Izan ezean, eskatuko zaio konpromisoa hartzeko, esleipena egin eta urtebeteko epean Euskara Plana diseinatu edo euskara ziurtagiria lortzeko prozesua abian jar dezan.

Kontratuak nahitaez bete beharko du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Udalaren hizkuntza irizpideak eta otsailaren 22ko 19/2024 DEKRETUAK, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabiltzera normalizatzekoari buruzkoak 13. artikuluan jasotzen duena .

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza irizpideak bete beharko ditu zerbitzua ematean.

Enpresa esleipendunaren langileek zuzeneko harremana izanez gero jasole euskaldunekin, kontratua ezinbestean euskaraz gauzatuko da. Hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko betebehar izaera izango dute.

Hizkuntza klausuletan Euskara Zerbitzuak zehaztuko du zerbitzua emango duten langileen hizkuntza gaitasun maila eta maila hori egiaztatzeko era.

Zerbitzua emateko subrogatutako langileak egonez gero, horien euskara gaitasun mailaren inguruko informazioa eskuratuko dio kontratazioaren ardura duen udal teknikariak Euskara Zerbitzuari zerbitzu horretarako hizkuntza klausulak prestatu aurretik. Subrogatutako langile horiek ez badute zerbitzurako eskatutako euskara konpetentzia maila, hizkuntza baldintzen txostenean jasoko da enpresa esleipendunari eskatuko zaiola maila hori lortzeko formazio plana prestatzeko, eta aukera eskaintzeko langile subrogatu horiei euskara konpetentzia maila eskura dezaten. Kontratuaren objektuan eta zerbitzuaren deskribapenean zehaztutako euskararen garrantziaren arabera eta kontratatu nahi den zerbitzuaren hizkuntza-helburu espezifikoen arabera, langileek zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dute; langileek bi hizkuntza ofizialetan zerbitzua emateko gaitasun maila egokia eskuratzeko formazioa teknikotzat joko da; beraz, eskatutako konpetentzia maila eskuratzeko formazio-plana enpresa esleipendunak langileen urteko formazioa teknikorako planean jasoko du.

Bestalde, enpresa esleipendunak langileen urteko formazioa teknikorako planean jasoko ditu hizkuntzen kudeaketa hobetzeko antola daitezkeen ikastaro eta saioak ere.

Hizkuntza klausuletan zehaztuko dira enpresa esleipendunak zerbitzua ematean jarriko dituen errotulu, ohar eta gainerako idatzien hizkuntza, herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioen hizkuntza; baita Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko idatzizko eta ahozko harreman hizkuntza ere.

Kontratazioa sustatuko duen udal lan-sailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzua emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Hizkuntza baldintzak urratzen badira, kontratuak ez betetzeagatik araudiak dioena aplikatuko da.

5.2 eranskinean jasotako eredua oinarri hartuta prestatuko ditu Udalak kontratazioetarako hizkuntza baldintzak, Euskara Zerbitzuari aholkularitza eskatuta.

Horniketa kontratuak

Udalak hizkuntza klausulak txertatuko ditu horniketa kontratuetan, onartuta dituen irizpideak kontuan hartuta. Hizkuntza klausuletan zehaztuko dira horniketa enpresak erakundea identifikatzeko jarriko dituen elementu grafiko, errotulu, kartel ohar eta gainerako idatzien hizkuntza —koadro elektrikoetako, su-itzalgailuetako, alarma enpresek eraikinetan jarritako idatziak barne—, horniketa enpresak eskainiko dituen erabilera eskuliburu, softwareko testuzko eta soinuzko interfazea —igogailuetako mezuak...— eta gainerako dokumentazioaren hizkuntza; eta, udalaren eta horniketa enpresaren arteko idatzizko eta ahozko harreman

hizkuntza. Kontratazioa sustatuko duen udal lan-sailaren arduradunak jarraipena egingo du eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

5.3 eranskinean jasotako eredua oinarri hartuta prestatuko ditu Udalak horniketa kontratuetarako hizkuntza baldintzak, beharrezkoa den kasuetan Euskara Zerbitzuan aholkularitza eskatuta.

Obra kontratuak

Udalak hizkuntza klausulak txertatuko ditu obra kontratuetan, onartuta dituen irizpideak kontuan hartuta.

Hizkuntza klausuletan zehaztuko ditu obra eremuan enpresak jarriko dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorren hizkuntza — behin-behinekoak nahiz finkoak— ; eta, Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko idatzizko eta ahozko harreman hizkuntza.

Kontratuaren xedea proiektu baten erredakzioa denean, hizkuntza klausuletan zehaztuko ditu kontratuaren xede den dokumentazioaren hizkuntza, eta Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko idatzizko eta ahozko harreman hizkuntza. Obra zuzendaritza kontratatzen denean, obra zuzendariaren euskara gaitasun maila ere zehaztuko du hizkuntza klausuletan.

Kontratazioa sustatuko duen udal lan-sailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzua emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

5.4 eranskinean jasotako eredua oinarri hartuta prestatuko ditu Udalak obra kontratuetarako hizkuntza baldintzak, beharrezkoa den kasuetan Euskara Zerbitzuan aholkularitza eskatuta.

Besterik —langileentzako zerbitzuak, aseguru polizak, auditoria, formazioa...—

Kontratua sustatuko duen udal sailaren ardura izango da Euskara Zerbitzuari eskatzea hizkuntza klausulen txostena egin dezan; eta sail hori bera arduratuko da jarraipena egiteaz zerbitzua emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

2.4.1.2 Dirulaguntza eta hitzarmenetan

Udalak beste entitate publiko edota pribatu batzuekin hitzarmenak sinatu ahal izango ditu, euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko.

Euskararen erabilera normala bermatuko eta sustatuko du Udalak diruz lagundutako jardueretan; eta horretarako dirulaguntza oinarriak prestatuko dituen udal sailak hizkuntza aholkularitza eskatuko du Euskara Zerbitzuan.

Diruz lagundutako jardueretarako oinarrietan, baita hitzarmen bidezkoetan ere, hizkuntza klausulak txertatuko dira, diruz lagundutako jarduerak badakar herritarrekin zuzeneko harremana eta jarduera horretan euskararen erabilera eta sustapena faktore garrantzitsua bada diruz lagundutako jardueraren xedean; hala nola, arlo-sozioekonomikoan — merkataritzan, esaterako—, kultur eta kirol arloetan, gizarte zerbitzuetan...

- Sustatuko da dirulaguntza onuradunaren — elkarte, merkatari...— eta udalaren arteko harremanak, ahoz nahiz idatziz, euskaraz izatea. Beraz, dirulaguntza eskatzeko dokumentazioaren euskara hutsezko bertsioa ere egongo dela bermatu beharko da.
- Diruz lagundutako jarduera haur eta gazteei zuzendua denean, jarduera euskaraz egingo da ahoz eta idatziz.

- Diruz lagundutako jarduera haur eta gazteei zuzendua ez denean, jarduera jasoleen euskara gaitasun maila kontuan hartuta egingo da.
- Jarduera egingo den espazioan komunikazioak edo argitalpenak egin behar direnean, gutxienez, euskaraz egingo dira. Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
- Dirulaguntza jasotzen duen ekintzatik eratorri daitekeen hitzaldi edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da, arrazoitutako salbuespenak izan ezik, — hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea— hizkuntza eskubideak errespeta daitezen.
- Haur eta gazteekin aritzen diren hezitzaileei Udalak formazio soziolinguistikoa emango die lanordutan, eta Udalaren irizpideak jakinaraziko zaizkie.

Hizkuntza klausulen betetze mailaren jarraipena elkarlanean egingo dute dirulaguntza oinarriak prestatu dituen udal sailaren eta Euskara Zerbitzuaren artean.

Udalak hitzarmenak euskaraz sinatuko ditu. Udalak hitzarmena entitate pribatu edo pertsona fisiko edo juridikoarekin sinatzen duenean, entitate horrek espresuki eskatuta espainierazko bertsioa eskatuz gero, Udalak hitzarmenaren itzulpena eskuratuko dio.

5.5 eranskinean jasotako eredua oinarri hartuta prestatuko ditu Udalak dirulaguntza edo hitzarmenetarako hizkuntza betebeharrak, Euskara Zerbitzuari aholkularitza eskatuta.

2.4.1.3 Baimenetan, onarpenetan

Hirigintzako onarpenak

Udalean aurkeztu behar diren hirigintza-dokumentuen hizkuntza zehaztuko da, izan Udalak esleituak, izan eragile pribatuek aurkeztuak.

5.4 eranskinean jasotako eredua oinarri hartuta zehaztuko da Udalean aurkeztu beharreko dokumentuen hizkuntza.

Horrezaz gain, Udalak kale eta bide publikoetako iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan euskara erabiltzeko baldintza jarriko du.

Jabari publikoaren erabilera pribatiborako baimenetan —terrazak, udal eraikinak... — Udalak klausulak txertatuko ditu erabiltzaileei nahiz kontsumitzaileei ematen zaizkien informazio nahiz segurtasun abisuak eta jendaurrean jartzen diren errotulu, ohar, karta, seinale eta abarrak ere gutxienez euskaraz izan daitezen. Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira, lehentasuna izango du euskarak.

Irekitzeko baimenak

Era berean, irekitzeko baimena emateko espedientean Udalak errotulazioa euskaraz jar dezala gomendatuko dio eskatzaileari, eta, egotekotan, dauden laguntzen berri emango die.

Udalaren instalazioak eta espazio publikoa erabiltzeko baimenak

Edozein delarik ere ekitaldia Udalaren jabegoko instalazioak eta espazio publikoa erabiltzeko baimena behar den kasuetan — azokak, jaialdiak...— Udalak laguntza eskainiko du euskara erabil dadin, jendaurreko ekitaldietan batik bat. Ekitaldi horiei lotutako idatzizko

euskarriak —kartelak, iragarkiak, oharrak, power-pointa, salgaien aipamenak/prezioak ...— gutxienez euskaraz egingo dira. Ahozko jardunean, berriz, —aurkezpenean, musikan...— euskararen presentzia bermatuko da.

Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira, lehentasuna izango du euskarak.

Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta Udalaren hizkuntza baldintzei jaramonik egiten ez badie, Udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu — baimena ukatzea, fidantza ez bueltatzea edo dagokiona —hizkuntza araudia bete ez dutenen aurka.

Jaietako postuak eta barrakak

Jaiak direla-eta postua edo barrakak jartzeko baimen eske datozenei postuak jartzeko bete beharreko gainerako baldintzekin batera euskararen baldintzak ere jarriko dizkie Udalak; eta laguntza eskainiko die prezioak, errotuluak eta oharrak euskaraz jartzeko, baita girotzeko erabiliko den musikan euskararen erabilera bermatzeko ere.

Baimena eman duen saila arduratuko da jarraipena egiteaz zerbitzua emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

2.4.2 Hizkuntza inpaktuaren ebaluazioa

Udalerriko euskararen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena emateko prozeduretan, euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen eragina ebaluatuko du Udalak. Egoera soziolinguistikoan eragin negatiboa izango duela ondorioztatuz gero, eragin horren neurria kalkulatuko du eta neurri zuzentzaileak diseinatuko ditu euskararen erabileraren normalizazioan gaineko ondorio kaltegarri horiek prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko.
Honakoak izango dira hizkuntzan eragina izan dezaketen plan eta proiektu nagusiak:

a) Planak
- Hiri-antolamenduko plan orokorrak
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana
- Sektorizatze-plana
- Plangintzako arau subsidiarioak
- Plan partzialak
- Hiri-antolamenduko plan bereziak
- Turismo-planak

b) Proiektuak
- Merkataritza-gune handiak eraikitzeko proiektuak
- Industriaguneak eta teknologia-parkeak eraikitzeko proiektuak

Hizkuntzaren eragina neurtzeko oinarriak jartzeko ordenantza eta ebaluazioak egiteko batzordea sortuko du Udalak.

3. ERABILERA. ZERBITZU HIZKUNTZA

Zerbitzu hizkuntzatzat hartzen da Udal langileek erabiltzen dutena, ahoz zein idatziz —aurrez aurre, telefonoz edo bitarteko elektronikoen bidez— herritarrekiko harremanetan, zuzenean zein hirugarrenen bidez.

3.1 IRUDIA

Udalaren irudi korporatiboaren elementuak, organoen eta organismoen izenak euskaraz idatziko dira, euskarria edozein dela ere. Hori horrela, gutun-azalak, menbretedun orriak, karpetak, egutegiak, agendak, horma-irudiak... euskaraz izango dira; eta, udal ibilgailu, jantzi, altzari eta bestelako elementuak euskaraz errotulatuko dira.

3.1.1 Udalaren errotuluak —finkoak zein behin-behinekoak—, eta ikus-entzunezkoak

Errotuluak

Udal eraikinetako kanpoko errotulu nagusiak euskaraz jarriko dira: Hernaniko Udaletxea, Udal Kiroldegia, Udal Euskaltegia, Hernani Musika Eskola Publikoa, Biteri kultur etxea...

Errotulu, ohar, seinale eta gainerako komunikazio orokorrak gutxienez euskaraz izango dira. Euskara hutsez jarriko dira kasu hauetan:

- Testuaren grafia euskaraz eta espainieraz antzekoa denean
- Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean
- Mezuarekin batera piktograma bat dagoenean esanahia argitzeko

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean eta beste hizkuntza batzuk erabili behar badira, lehentasuna izango du euskarak, betiere Euskara Zerbitzuarekin aldez aurretik adostuta.

5.7 eranskinean jasota daude bide seinaleetako eta kale errotulaziorako hizkuntza irizpideak

Ikus-entzunezkoak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak gutxienez euskaraz izango dira —igogailuak, ate automatikoetako ahozko oharrak, ikus-entzunezkoak...—. Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira, lehentasuna izango du euskarak.

3.1.2 Argitalpenak —gida, aldizkari, katalogoak...— iragarkiak, eta publizitatea

Gutxienez euskaraz izango dira udalaren argitalpenak, iragarkiak, udalerrian zabaldu beharreko dokumentuak —argitalpenak, bandoak, oharrak, egitarauak, udal aldizkaria, kartelak, eskuorriak...—, zabalkunde handiko agiri ofizialak — bandoak, kaleko oharrak... — eta publizitatea. Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira, lehentasuna izango du euskarak.

Aukera ematen duten testuetan — kartelak, esku-orriak...— QR kodea txertatuko da.

Herritar multzo euskaldunari —gazteak, haurrak, herriko elkarteak, ikastetxeak...— zuzendutako argitalpenak, eta euskaraz izango diren jardueren publizitatea eta informazioa euskaraz izango dira, baita sare sozialen bidez partekatzen direnean ere.

Gurasoei zuzendutako Lehen Hezkuntza bitarteko haurrentzako jarduerei buruzko komunikazioa gutxienez euskaraz izango da. Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira, lehentasuna izango du euskarak.

Jaietako egitarauak

Udalerri-mailako jaien egitaraua jasotzeko liburuxketan, euskara hutsez egingo da egitarauaren zati irudiduna, eta beste hizkuntza batzuetan argitaratu behar izanez gero, egitarauaren atzeko aldean jarriko da laburpena edo papereko egitarauan QR kodea txertatuta.

Egitarauaren hasieran agurrik-edo txertatuz gero, euskaraz egingo da mezu hori, eta hori jarriko da nabarmenduta, kokapen eta neurri aldetik; mezu horren espainierazkoa txertatu ahal izango da orrialde berean.

Beste hizkuntza batzuetan ere argitaratu ahal izango da egitaraua, online, papereko egitarauan QR kodea txertatuta.

Arnasgune izendatutako auzoen kasuan, euskara hutsez argitaratuko da egitaraua.

Publizitatea

Publizitate kanpainetan, Udalak zuzenean egin nahiz azpikontratatzen direnean, bereziki zainduko da euskarazko esloganak hizkuntza horretan sortu izana eta ez izatea espainieraren itzulpen hutsa, eta horrela jasoko da baldintza pleguetan.

Iragarkien testua ele bietan baldin badago, euskarazko testua nabarmendu egingo da. Ele bietan egitekotan, eta horretarako aukera baldin badago, ez da testu osoa espainieraz jarriko, informaziorik garrantzitsuena baizik.

Euskarazko hedabideetan euskara hutsez jarriko da publizitatea, eta espainierazkoetan, ele bietan.

Udalak publizitateko aurrekontuaren % 50 gutxienez bideratuko du euskarazko hedabideetara.

3.1.3 Agerraldi instituzionalak eta prentsa oharrak

Ekitaldi publikoetan edota prentsaurrekoetan Udalaren izenean aritzen direnek euskarazko gaitasun egokia izango dute; eta, euskaraz egingo dute ekitaldia edo prentsaurrekoa. Ulertzen ez duenarentzat ulertzeko bitartekoak jarriko ditu Udalak.

Ekitaldi publiko horiei lotutako idatzizko euskarriak euskaraz egingo dira. Beste hizkuntza batzuk erabili behar badira, lehentasuna izango du euskarak.

Elkarrizketak

Telebistan eta irratian, zuzeneko emanaldia ez bada, euskara hutsez egingo da Euskal Herriko komunikabideetan, bereziki hedabide publikoetan; erdarazko hedabideek, egoki irizten badiote, azpititulatu ahalko dute esandakoa. Euskal Herritik kanpoko hedabideetan, euskaraz egiteko proposamena egingo zaie, eta posible den neurrian hala egingo da; edozein kasutan, gutxienez hasiera-amaierako agurretan euskaraz egingo da horietan ere.

Telebistan eta irratian, zuzeneko emanaldia bada, euskaraz emango dira erantzunak Euskal Herriko hedabide publikoetan. Bestelako medioetan euskarazko komunikazioa lehenetsiko da; eta kasuan kasuko egoera aztertuko da.

Idatzizko hedabideen kasuan, Euskal Herriko erdarazko hedabideetan, aukera egonez gero, elkarrizketa euskaraz egingo da. Hedabidea arduratuko da espainieraz jartzeaz; eta proposatuko zaio argitalpenean adieraztea elkarrizketa euskaraz izan dela.

3.1.4 Webgunea eta sare sozialak

Webgunea

Webgunea euskaraz irekiko da, eta euskaraz nabigatzen ari denari informazio guztia euskaraz bistaratuko zaio, errore oharrak barne.

Web-orrialdeen URL helbideek euskarazko hitzak eduki behar dituzte.

Informazio hau gutxienez, jarriko da euskaraz: euskaraz den jardueraren berri emateko berriak, euskararen erabileraren sustapenarekin zerikusia dutenen ekimenenenak, herritar multzo euskaldunei zuzendutakoenak —gazteak, ikastetxeak...— eta udal langileei zuzendutakoenak.

Gurasoei zuzendutako Lehen Hezkuntza bitarteko haurrentzako jarduerei buruzko komunikazioa gutxienez euskaraz izango da. Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira, lehentasuna izango du euskarak.

Webgunea berritzen denean, kontuan hartuko dira unean uneko hizkuntza teknologiak —itzultzaile neuronalak...— eta aztertuko da ea aukera dagoen euskara hutsez jartzeko eta zein beste hizkuntzatara itzuliko den. Udal buletinaren kasuan, irizpide bera aplikatuko da.

Webgunea beste hizkuntza batean erabiltzen bada, Internet bidez lor daitezkeen idazki orok eta online izapidetzeek herritarrentzako agirien hizkuntza irizpide berberak bete beharko dituzte; hau da, euskaraz egon beharko dute.

Beste webgune batzuetarako estekek euskarazko atarietara eramango gaituztela bermatuko da.

Sare sozialak

- **X (Twitter) Facebook, instagram eta telegram...**

Informazio hau gutxienez, jarriko da euskaraz: euskaraz den jardueraren berri emateko berriak, euskararen erabileraren sustapenarekin zerikusia dutenen ekimenenenak, herritar multzo euskaldunei zuzendutakoenak —gazteak, ikastetxeak...—eta udal langileei zuzendutakoenak.

Gurasoei zuzendutako Lehen Hezkuntza bitarteko haurrentzako jarduerei buruzko komunikazioa gutxienez euskaraz izango da. Beste hizkuntza batzuk erabiltzen badira, lehentasuna izango du euskarak.

Legeak horrela aginduta bi hizkuntzatan argitaratu behar izanez gero, lehentasuna izango du euskarazko argitalpenak. Itzultzaile neuronalak —google, itzuli +...— bistan jarriko dira testua beste hizkuntza batera itzuli ahal izateko.

Erabiltzaileei erantzutekoan, haiek erabilitako hizkuntza kontuan hartuko da, eta euskara hutsez edo ele bietan erantzungo da.

Argazki-oinak, traolak eta gainerakoak euskaraz izango dira.

Sare sozialetan kontu berri bat sortu behar denean, euskarazko izena jarriko zaio.

Sare sozialetara espainieraz dagoen bideoa igoz gero, euskaraz jarriko dira azpitituluak.

Mugikorretarako APP-ak

Udalaren aplikazioak euskaraz egongo dira, eta aplikazioa instalatzeko hizkuntza modura lehenetsita egongo da euskara. Euskara aukeratuz gero, komunikazio eta agiri guztiak euskaraz bidaliko dira.

3.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK

3.2.1 Ahozko harremanak

Aurrez aurre nahiz telefonoz

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean diharduenak euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egingo die, hartzaileak hizkuntza aukeratu baino lehen. Langileak lehenengo hitza eta bigarrena euskaraz egingo du. Langilea jabetzen bada euskaraz emandako azalpena ez duela ulertu herritarrak, horrek aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko du langileak, herritarrak hizkuntza ofiziala erabiltzeko daukan eskubidea bermatzeko.

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak gutxienez euskaraz izango dira —erantzungailu automatikoz, bozgorailuz nahiz igogailuek emandakoak—. Beste hizkuntza batzuk erabili behar badira, lehentasuna izango du euskarak.

Herritarren aurrean udaleko langileen arteko komunikazioetan euskara erabiltzeak prestigioa ematen dionez hizkuntzari, Udalak sustatuko du langileen arteko euskarazko komunikazioa herritarren aurrean.

Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak

Herritarrentzako saioa antolatzen duen sailak aldez aurretik landuko du ekitaldian nolakoa izango den hizkuntza-kudeaketa, eta horren berri eman: batetik, saioan parte hartuko dutenei —hizlariei, aurkezleei...—, aurretik argi izan dezaten nola aritu behar duten; bestetik, herritarrei, saiorako gonbidapenean zehaztuz zein hizkuntzatan egingo den. Hizkuntza-kudeaketa lantzean, aintzat hartuko da zein izango diren hartzaile potentzialak, horren arabera hizkuntza ahalik eta era egokienean erabiltzeko. Hori bideratzen laguntzeko, aurretiaz izen-ematerik egon ez den kasuetan galdetuko da bertaratutako guztiek euskaraz ulertzen ote duten, eta jasotako emaitzaren arabera jokatuko da hizkuntza-kudeaketaren aldetik, irizpide hauen ildoarekin bat etorrita.

Deialdian zehaztu egingo da saioa zer hizkuntzatan egingo den, eta jatorrizko izenburua jarriko da: saioa euskaraz bada, euskarazko izenburua, espainieraz bada, espainierazkoa Saio elebidunetan, aurretiaz hizlariarekin zehaztu behar da zer den saioa ele bikoa izatea.

Herritarrek, hitza hartzean, euskaraz zein espainieraz egin ahalko dute, eta ez zaie itzultzeko eskatuko.

Hizkuntza irizpideak Udalak markatuko ditu eta ez dira ekitaldian eztabaidatuko. Beraz:

- Adingabeei zuzendutako jarduerak euskaraz izango dira. Eta idatzizko euskarriren bat erabiltzen bada, hori ere euskaraz izango da.
- Ez zaie inoiz hitzaldi, ikastaro edo parte-hartze prozesu bateko partaideei galdetuko jarduera hori zein hizkuntzatan gauzatzea nahi duten. Ez eta hizlari, irakasle eta abarrei ere.
- Helduei zuzendutako jarduerak euskaraz edo beste hizkuntza batzuetan izango dira. Jarduera iragartzeko euskarria edozein delarik ere, bertan adieraziko da jarduera zein hizkuntzatan egingo den.
- Jardueran parte hartzeko aldez aurretik izena eman behar izanez gero, izen-emate orrian txertatuko da parte-hartzailearen euskara gaitasun mailaren datua jasotzeko eremua.
- Era berean, inongo kasutan ez da ikasleek edo parte-hartzaileek proposatu eta euskararen kaltetan izan litekeen hizkuntza irizpiderik —adibidez, "denok ulertzen dugu, egin lasai espainieraz"— ez eztabaidatuko eta ez aplikatuko.
- Jarduerei lotutako idatzizko euskarriak, kartelak, izen- emate orriak, balorazio orriak nahiz bestelakoak gutxienez euskaraz egongo dira. Beste hizkuntza batzuk erabili behar badira lehentasuna izango du euskarak.

5.6 eranskinean jasotako eredua oinarri hartuta prestatuko ditu Udalak herritarrentzako ekitaldietarako hizkuntza irizpideak, Euskara Zerbitzuan aholkularitza eskatuta

3.2.2 Idatzizko harremanak

Inprimakiak

Udalak beti izango ditu herritarraren esku euskarazko eta ele bietako agiriak —inprimakiak...—, eta, herritarrak agiriren bat eskatzen duenean, udal langileak herritarraren eskaeraren arabera euskarazkoa edo ele bietakoa emango dio. Ele bietako bertsioan lehentasuna izango du euskarak.

Udal langileak euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egingo du, eta herritarra gai bada euskaraz emandako azalpena ulertzeko, udal langileak lehenik euskara hutsezkoa emango dio; herritarrak ele bietako bertsioa eskatuz gero, eskuratu egingo zaio herritarrak hizkuntza ofiziala erabiltzeko daukan eskubidea bermatzeko.

Inprimaki horiek udal bulegoetan herritarren eskura jartzen badira, euskara hutsezko bertsioari lehentasunezko espazioa eskainiko zaio. Bereziki zainduko da beti egotea eskuragarri bertsio hori.

Beste erakunderen baten inprimakien kasuan ere, Udalak onartuta dituen irizpideak beteko dira. Beraz, espainiera hutsezko inprimakiren bat etorriz gero, Udalak euskarazko inprimakia eskatuko dio dagokion erakundeari.

Jakinarazpenak, baimenak...

Herritarrentzako idatziak —jakinarazpenak, baimenak, errekerimenduak...— gutxienez euskaraz izango dira. Beste hizkuntza batzuk erabili behar direnean, lehentasuna izango du euskarak. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei, euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzungo zaie idatziz. Euskaraz ulertzeko gaitasuna duten herri elkarteekiko, merkatariekiko eta establezimenduekiko harremana euskaraz izango da.

Administrazio prozedurari lotutako dokumentuak

Administrazio prozedura jakin batean interesdun diren pertsonek prozedura horren izapideetan sortu den dokumentaziorako irispidea izango dute, gardentasunaren alorreko legediak xedatzen duen eran. Dokumentazio hori sorburu-hizkuntza izan duen hizkuntzan kontsultatu ahalko da edonola ere. Udalak interesdunen zerbitzura jarriko ditu eskuragarritasuna eta gardentasuna bermatzeko behar diren itzulpen-tresna elektronikoak.

Euskarari lehentasuna emateko jarraibideak

Udala komunikazioa euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan egitera behartuta dagoenean, lehentasuna izango du euskarak honako irizpide hauei jarraituz:

- Euskarazkoa nabarmendu, letra handiagoa edo lodia erabiliz
- Euskarazkoa beltzez eta beste hizkuntza batean grisez idatziz
- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerraldean idatziz
- Testua osorik euskaraz eta, laburpena, beste hizkuntza batean emanez
- Osagai batzuk euskara hutsean emanez: kopuruak, toki-izenak, datak...
- Itzulpenera bideratuko duen lotura edo QRa jarriz

4. ERABILERA. LAN HIZKUNTZA

Lan-hizkuntza da udal langileek erabiltzen dutena, ahoz zein idatziz, bai barruko harremanetan, bai beste entitate batzuekiko harremanetan.
Udalak euskara du lan-hizkuntza izendatua. Honenbestez, udal langileek euskaraz egingo dute lan, eta Udalak horretarako beharrezko baliabideak eskainizko dizkie.

4.1 BARNE HARREMANAK

4.1.1 Lankideen arteko ahozko harremana

Udal eraikinetan entzuten den hizkuntza Udalaren irudia ere bada; eta herritarrarentzat pisu handia dauka udal langileek beraien artean zein hizkuntzatan hitz egiten duten. Beraz, lankideen arteko telefonozko eta aurrez aurreko ahozko lan harremanak euskaraz izango dira. Hizkuntza ohituretan aldaketa eragiteko beharra balego, Udalak sustapen lana egingo du.

4.1.2 Lan bilerak

Sailetako edozein atalek antolatzen dituen barneko lan bilerak euskaraz egingo dira; Udal organoetako bilerak ere euskaraz izango dira eta ulertzeko gai ez den arduradun politikorik balego, aldian aldiko neurriak hartuko dira, betiere euskarazko jarduna oztopatu gabe.
Bilera egiteko deia, akta eta bertan lantzeko dokumentazioa ere euskaraz egingo dira.
Batzar edo batzorde berriren bat egin behar denean, batzordekide berriak hautatzerakoan, kontuan hartuko da Udaleko lan hizkuntza euskara dela. Batzordekideek bi hizkuntza jakitea hartu beharko da kontuan, edota batzordekideren batek gaitasunik ez balu, hori gainditzeko baliabideak jartzeko aukera aztertuko da —aldibereko itzulpena, xuxurlaria, telegram—.

4.1.3 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia

Euskaraz izango dira:

- Errotulu eta seinaleak
- Zigiluak eta sinadura elektronikoak
- Ordenagailuan dauden karpeten izenak
- Apal, artxibategi, karpeta eta abarretan jartzen diren etiketak eta noizbehinkako oharrak
- Kafe makinen eta koadro elektrikoen errotulazioak
- Fotokopiagailuak

4.1.4 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak

Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazio guztiak euskaraz egingo dira —memoria, azterketa, txosten, eskaera, inprimaki, jakinarazpen, bileretako gaiekin lotutako dokumentazioa, irizpenak, langileen lan kontratuak, izendapenak eta nominak...— baita udal barruko sare informatikoan dauden karpeten izenak eta edukiak ere.

4.1.5 Prozedura administratiboak abian jartzeko hizkuntza

Ofizioz hasitako prozedura administratiboak nahiz interesdunak hasitako prozedurak euskaraz jarriko ditu abian Udalak.

Erregistro elektronikoetan, jakinarazpenetan eta idazkietan datuak, gaia... euskaraz erregistratuko dira idatzia euskaraz edo ele bietan badago. Eta beti jasoko da erregistratu behar den idatziaren hizkuntza.

4.1.6 Eskritura publikoak

Udala eskritura publikoak euskaraz idazten saiatuko da, eta eskritura publikoak euskaraz erregistratuko ditu dagokien erregistroetan.

4.1.7 Xedapen orokorrak

Xedapen orokorrak izapidetzeko urrats guztiak euskaraz abiaraziko dira.

4.2 KANPO HARREMANAK

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin eta enpresa pribatuekin harremana, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, ahoz nahiz idatziz euskaraz izan dadin sustatuko du Udalak.

4.2.1 Sektore publikoko erakundeekin ahozko harremana

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, ahozko harremana, telefonoz nahiz aurrez aurre, euskaraz izango da. Solaskideak euskaraz ez badaki edo euskaraz ulertzen ez badu, euskaraz ulertzeko gai den beste norbaitekin jartzeko eskatuko dugu. Bi erakundeen arteko harremana ohikoa bada, Udalaren eta beste erakunde publikoaren arteko harremana euskaraz izatea sustatuko du Udalak, hitzarmenen bidez, esaterako.

4.2.2 Sektore publikoko erakundeekin idatzizko komunikazioak

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako Foru Komunitateko lurralde esparruan dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, harremana euskaraz izango da; baita EAEko lurralde esparruan estatuarentzako eta beraren mendeko administrazioentzako komunikazio administratiboak ere.

Euskaraz egindako komunikazio horiek balio juridiko osoa dute, eta erakunde hartzaileak ezingo du eskatu jatorrizko dokumentuaren itzulpena. Itzultzekotan, erakunde hartzailearen ardura izango da itzulpen hori. Hala ere, itzulpena ez bidaltzeagatik herritar bat kaltetua izan badaiteke, Euskara Zerbitzuarekin batera adostuko da itzulpena bidali ala ez, eta zein neurri osagarri hartu.

Beste administrazio publikoetatik jasotako idatziak ere euskaraz izateko neurriak hartuko ditu Udalak. Horrenbestez, idatzia espainieraz jasoz gero, idatzi horren kopia bueltatu egingo da gutun batekin. Bertan adieraziko da euskaraz jaso nahi dela.

Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko administrazioei bidalitako komunikazioak euskaraz ere bidaliko dira, gure hizkuntza propioaren presentzia agerian uzteko.

Udalean beste administrazio batetik ele bietan jasotako idatziari, eskaerari... euskaraz erantzungo zaio.

4.2.3 Enpresa pribatuekin ahozko harremana

Enpresa pribatuekin ahozko harremana, telefonoz nahiz aurrez aurre, euskaraz izan dadin sustatuko du Udalak.

Hartzailea aurrez aurre edo telefonoaren beste aldean dagoenean, Udalaren izenean ari denak lehenengo hitza eta bigarrena euskaraz egingo ditu solaskideak espainieraz egin nahi duela adierazten ez badu.

Kontuan eduki behar da elkarrizketa baten lehenengo hitza euskaraz izatea oso garrantzitsua den arren, geroko elkarrizketa ere euskaraz izatea sustatu behar duela Udalak. Hartzaileak euskaraz ulertzen ez badu, euskarazko solaskidea eskatuko du udal langileak, enpresa euskara ofiziala den lurraldean badago.

4.2.4 Enpresa pribatuekin idatzizko komunikazioak

Erakunde pribatuekin nahiz hornitzaileekin idatzizko harremana euskaraz izan dadin sustatuko du Udalak.

Udalak gutxienez euskaraz bidaliko ditu komunikazioak —jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...— Enpresa pribatuak espainieraz jasotzeko eskaera egiten badu, ele bietan helaraziko zaio, irizpide hauei jarraituz.

- Itzulpena Itzulpen Zerbitzuak egingo du.
- Sinadura jatorrizko testuak eramango du.
- Testua luzea bada, itzulpenean euskaraz eta espainieraz jarriko da:

"Euskarazko eta espainierazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balioa"

"En el caso de que haya contradicciones e incoherencias entre los textos en euskera y español, tendrá validez el texto en euskera"

Itzulpenarekin batera bidaltzen den idatzian adieraziko da itzulpena dela, eta udaleko itzulpen zerbitzuak egin duela itzulpen hori beraiek eskatu dutelako.

Hornitzaileekin harremana euskaraz izatea sustatuko du Udalak. Harremana ohikoa den kasuetan, hornitzaileei udalaren hizkuntza politikaren berri emango zaie, eta eskatuko zaie harremana euskaraz izateko ahoz eta idatziz. Honela, gutxienez aurrekontuak eta fakturak, euskaraz bidaltzeko eskatuko zaie.

4.3 PRESTAKUNTZA

4.3.1 Langileentzako prestakuntza

Prestakuntza orokorra

Udalak antolatzen dituen ikastaro guztiak euskaraz izango dira.

Langileek beste erakunderen edo enpresaren batek antolatzen dituzten prestakuntza ekintzetara joan behar badute, euskarazkoa hautatuko dute, aukera den guztietan. Udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko du, zuzenean erakunde horrekin harremanetan jarrita.

Prestakuntza antolatzen duen Udal Sailak udal langileek egiten dituzten ikastaroen hizkuntzaren kudeaketa egingo du, eta egindako ikastaroen hizkuntzaren inguruko datuak jasoko ditu. Horretarako Euskara Zerbitzuaren aholkularitza jasoko du.

Euskara gaitasun maila hobetzeko hizkuntza prestakuntza

Udalak hizkuntza prestakuntza, baimena eta laguntza eskainiko die langileei eta ordezkari politikoei beren euskara gaitasun maila hobe dadin — euskaltegira joateagatik matrikularen kostua, zuzenketa zerbitzua, hizkuntza prestakuntza espezifikoa...— .

4.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK

Udalak berak sortutako programak, aplikazioak, datu-baseak euskaraz izango dira.

Tresna eta aplikazio informatikoen euskarazko bertsioa jarriko zaie beti langileei.

Aplikazio informatikoak kontratatu edo garatu behar badira, euskarazko bertsioa dutenak lehenetsiko ditu Udalak. Administrazio-jarduera automatizatuko sistemak nahiz bestelako aplikazioak diseinatzen direnean, euskara izango da lehen hizkuntza, erantzuteko eta kontsultak egiteko.

4.5 SORTZE HIZKUNTZA

Udal langileek euskaraz sortuko dituzte idatzi guztiak, idatzi horien luzera eta konplexutasuna edozein delarik ere. Arreta berezia jarriko da idatzi horien kalitatea zaintzeko eta komunikagarritasuna errazteko. Udalak egindako idatziak argiak eta ulergarriak izango dira beti. Horretarako, Udalak zuzenketa eta itzulpen zerbitzuak ditu langileen eskura. Euskaraz sortutako idatziak espainierazko itzulpena beharko balu, Udal Itzulpen Zerbitzuan eskatuko da.

Itzulpen eta zuzenketa irizpideak

- Ez da udal barruko idatzirik itzuliko eta zuzenduko
- Itzultzera edo zuzentzera bidaltzen den testua azken bertsioa izango da
- Lana jasotzeko epea zein den adieraziko da
- Testuaren egilea nor den adieraziko da

a) ZUZENKETAK

- Jendaurreko testuak edo zabalkunde bat dutenak derrigor zuzendu behar dira. Adibidez, honako hauek:
  - Bandoak, osoko bilkuretako deialdiak eta era horretako oharrak
  - Aldizkari ofizialetako iragarkiak
  - Hedabideetan argitaratzeko iragarki ofizialak
  - Jaietako egitarauak eta ikastaroetako liburuxkak
- Zuzenketak prestakuntza-aldi gisa hartuta, laguntza gero eta gutxiagotan behar izatea izango da helburu.
- Lehen zuzendutako testuak erabiliko dira nork bere biltegia osatzeko —baldintza-pleguak, antzeko txostenak, dekretuak...— eta gero eta autonomia handiagoa izateko.

b) ITZULPENAK

- Ez dira itzuliko testu labur eta sinpleak. Langileek beren kabuz itzuliko dituzte horrelakoak, eta Euskara Zerbitzuan hizkuntza aholkularitza eskatu ahal izango dute zalantzak eta abar argitzeko.
- Ez dira itzuliko lehendik itzulita dauden dokumentuak nahiz dokumentu zatiak. Dagokion sailaren ardura izango da lehendik itzulita dagoena errekuperatzea, luzea nahiz laburra izan.
- Ez da itzuliko euskara ofiziala duten erakunde publikoetara bidali beharreko testuak —Eusko Jaurlaritza, Aldundia, udalak, Arartekoa...—. Euskara hutsean bidali behar dira.
- Euskaratik espainierara itzultzeko, itzulpen zerbitzua erabili ahal izango da testua luzea eta konplexua denean eta dokumentua udal barruan sortu nahiz beste administrazio batetik jasoa izan. Salbuespentzat hartuko da espainieratik euskarara itzultzeko eskaera, eta arrazoitu egin beharko da. Dagokion departamentuko arduradun politikoaren oniritzia beharko du, itzulpen zerbitzura bidaltzeko. Ez dira euskararako itzulpena eskatzeko justifikazio izango testugileak txostena espainieraz errazago idaztea, presa eta abar. Horrelakoetan, langileren batek testua euskaraz sortzerakoan laguntza behar badu —pasarte korapilatsuak idazteko laguntza, euskaraz idatzitakoa zuzentzea...—, hizkuntza aholkularitza eskatu ahal izango du Euskara Zerbitzuan.
- Itzultzailearen esku jarriko dira itzulgaiari lotutako material, erreferentzia eta informazio iturriak, behar diren guztietan.
- Itzulpena jasotakoan, dokumentuaren ardura duen pertsonak gainbegiratuko du.
- Itzulpen Zerbitzuak itzulpenaren kalitatearen ardura besterik ez du izango.
- Ez dira Udalean euskarara itzuliko herritarrek/elkarteek... espainieraz egin eta Udalean entregatu nahi dituzten idatziak.
- Dokumentuaren konplexutasunagatik, bi bertsioen artean kontraesanik egon daitekeela aurreikusten bada, jarraian dagoen esaldia txertatuko da euskaraz eta espainieraz.

"Euskarazko eta espainierazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balioa"

"En el caso de que haya contradicciones e incoherencias entre los textos en euskera y español, tendrá validez el texto en euskera"

- Euskaraz sortu eta kanpora bideratu den idatzia itzultzeko eskatzen badute —epaitegiek, aseguru etxeek, abokatu bulegoek...— honela jokatuko dugu:

  Itzulpena Itzulpen Zerbitzuak egingo du.
  Sinadura jatorrizko testuak eramango du.
  Itzulpenean euskaraz eta espainieraz jarriko da:

"Euskarazko eta espainierazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanez gero, euskarazko testuak izango du balioa"	"En el caso de que haya contradicciones e incoherencias entre los textos en euskera y español, tendrá validez el texto en euskera"

Itzulpenarekin batera bidaltzen den idatzian adieraziko da itzulpena dela, eta Udal itzulpen zerbitzuak egin duela itzulpen hori beraiek eskatu dutelako.

5. ERANSKINAK

5.1 eranskina

Laburpen taula

Hizkuntza kudeaketa	Sailek egiten dituzten udal jarduera guztietan txertatuko dute hizkuntza kudeaketaren ikuspuntua, euskararen erabilera indarberritzeko. Euskara Zerbitzuak aholkularitza eskainiko du behar den guztietan. Proiektuen eta planen eragin linguistikoa neurtuko du Udalak, horiek sortu dezaketen kalteari aurre egiteko.
Udal ordezkariak	Eredugarriak, gidariak izango dira euskararen erabileran eta sustapenean; eta beren jarduera guztietan hizkuntzaren kudeaketa txertatzeaz arduratuko dira.
Lan hizkuntza eta sortze hizkuntza	Lan hizkuntza, ahoz eta idatziz, euskara da. Beraz, euskara da sortze hizkuntza. Idatzien kalitatea bermatzeko, langileek laguntza eta formazioa jasoko dute. Aplikazio informatikoak eta fotokopiagailuak euskaraz erabiliko dituzte udal langileek.
Langileak	Euskararen aldeko portaera izango dute beren jardun guztietan, izan kanpora begirakoa, izan barrura begirakoa; eta udalaren hizkuntza irizpideak beteko dituzte. Beren ardurapeko jardueren hizkuntza kudeaketaren ardura izango dute.
Lanpostuen hizkuntza ezaugarriak	Lanpostuek funtzioen araberako hizkuntza eskakizuna eta pasatako derrigortasun data izango dute. Euskara Zerbitzuak zehaztuko ditu lanpostu berrien hizkuntza ezaugarriak eta aginduzko txostena eskatuko du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikan. Txosten hori ez da loteslea izango.
Hautaketa-probak	Udalak probetako bat gutxienez euskaraz egingo du.
Hizkuntza klausulak	Kontratuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan eta baimenetan beharrezkoak diren hizkuntza klausulak sartuko dira. Aholkularitza eskatutako da Euskara Zerbitzuan. Hizkuntza klausulen jarraipena jarduera sustatu duen udal sailaren ardura izango da.
Irudia	Erakundearen errotuluak, euskarriak, ikus-entzunezkoak.., gutxienez, euskaraz izango dira. Sare sozialak euskaraz izango dira. Legeak behartuz gero, euskarak lehentasuna izango du.
Argitalpenak, iragarkiak, publizitatea eta agerraldi instituzionalak	Euskaraz izango dira, eta euskaraz ez dakitenen hizkuntza eskubideak bermatzeko kasuan kasuko baliabideak jarriko dira. Euskara Zerbitzuak aholkularitza eskainiko du behar den guztietan.

Langileek, euskararen erabileraren aldeko sustapen lana	Udal langileek aurrez aurre nahiz telefonoz lehen eta bigarren hitza euskaraz egingo dute herritarrekin. Euskararen erabilera sustatzeko portaera aktiboa izango dute.
Herritar multzo euskaldunekin	Herritar multzo euskaldunekiko harremana, ahoz eta idatziz, euskaraz izango da.
Ekitaldiak, jarduerak eta ikastaroak, parte-hartze prozesuak...	Adingabeei zuzendutako jarduerak euskaraz izango dira. Gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta espainieraz izango dira. Kasuan kasuan aholkularitza eskatuko da Euskara Zerbitzuan.
Inprimakiak	Euskara hutsezko bertsioa dagoela bermatuko da, eta lehentasunezko espazioa emango zaie euskarazko bertsioan dauden inprimakiei.
Jakinarazpenak, baimenak, gutunak...	Gutxienez euskaraz izango dira.
Beste hizkuntza batzuk	Euskara ez den beste hizkuntza bat erabili behar denean, lehentasuna izango du euskarak.

Hizkuntza paisaia	Euskaraz izango dira errotuluak, paperezko karpetetako inskripzioak, oharrak, udal sare informatikoan dauden karpeten izenak...
Idatzizko eta ahozko komunikazioa	Udal barruko komunikazio guztia, baita batzordeetara bideratuko den dokumentazioa ere, euskaraz izango da.
Prozedura administratiboak	Ofizioz hasitakoak euskaraz izango dira.
Langileentzako formazioa	Udalak langileentzat antolatutako ikastaroak euskaraz izango dira. Beste erakunde batek antolatutakoak badira, aukera dagoenean euskaraz eskainitakoa hautatuko da. Euskara gaitasuna hobetzeko laguntza emango die Udalak langileei eta arduradun politikoei.

Beste administrazio publikoekin	Erkidegoko eta Nafarroako eremu mistoekiko administrazioekiko ahozko eta idatzizko harremana euskaraz izango da.
Enpresa pribatuekin	Enpresa pribatuekiko ahozko eta idatzizko harremana euskaraz izatea sustatuko du Udalak.

5.2 eranskina

Zerbitzu kontratuetarako hizkuntza baldintzak

Zerbitzu kontratuek nahitaez bete behar dute hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Hernaniko Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak Udal barruan eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko.

Otsailaren 22ko 19/2024 DEKRETUAK, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak 13. artikuluan arautzen ditu kontratazio publikorako prozedurak. Bertan jasotzen du euskal sektore publikoko entitateek egindako kontratazio publikoetako prozedurak gauzatzen direnean **kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituztela kontratazio-organoek**, baita, hala badagokio, behar diren baliabide ekonomikoak ere; batetik herritar hartzaileari bermatzeko aukeratzen duen hizkuntza ofizialean emango zaiola zerbitzua eta hizkuntza-eskubideak bermatzeko baldintzetan emango dela zerbitzua; eta bestetik, euskararen eta espainieraren hizkuntza ofizialtasunaren erregularizazioa betetzeko. Eta, era berean, kontratazio-prozedura arautzen duten agiriek kontratuaren objektua kontuan hartuta, hizkuntza-normalizazioaren arloan kontratua gauzatzeko baldintzak ezarriko dituzte.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen du, enpresa esleipendunaren langileek zuzeneko harremana izanez gero jasole euskaldunekin. Eta administrazioari dagokio zerbitzu jasoleen hizkuntza eskubideak bermatzea. Horrenbestez, administrazioak bermatu behar du enpresa esleipendunak zerbitzua euskaraz ere eskaintzeko gaitasuna baduela.

Hizkuntza baldintza hauek kontratuaren funtsezko betebehar izaera izango dute, eta horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake edo kontratua bertan behera uztea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeari jarraituz.

a) Langileen euskara gaitasunari buruz

Zerbitzuan langile subrogatuak badaude, bereizi egingo dira langile berriak eta subrogatuta dauden langileak.

a1) Langile berrien euskara gaitasuna

Enpresa esleipendunak herritarrekin zuzeneko harremanean lana burutzeko izendatuko dituen langileek gai izan beharko dute beren eginkizunak bi hizkuntza ofizialetan egiteko, eta esleipena egingo bada, nahitaez egiaztatu beharko dute Euskara Zerbitzuak zerbitzuarentzat ezarritako hizkuntza gaitasun maila.

Egiaztapena nola:

- Euskara gaitasunaren titulu bitartez
- Euskaltegiratuta dauden pertsonen kasuan, euskaltegiak egindako agiri bitartez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko batek egindako mailaketa proban ateratako emaitza egiaztatzen duen agiri bitartez.

- Euskara maila egiaztatzetik salbuetsita dagoela jasotzen duen agiriaren bitartez: Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan eta otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuaren eranskinean jasota dagoenaren baitan.
- Hernaniko Udalean 2006az geroztik egindako mailaketa probaren batean ateratako emaitza hartuko da kontuan.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresako langileek kontrataziorako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatua ez badute, mailaketa-probak egingo dizkie Udalak. Azterketak Udalak zehaztutako egunean, orduan eta lekuan egingo dira. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuko ditu dagozkion azterketak langile horien euskara maila neurtzeko. Horretarako Euskara Zerbitzua harremanetan jarriko da enpresarekin. Enpresak bere gain hartuko du mailaketa proba horiek egiteak sor dezakeen kostua. Euskara Zerbitzuak txostena egin arte ezingo du Kontratazio Mahaiak kontratazioan aurrera egin.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresako langile guztiek zerbitzurako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badute, ezin izango da esleipenduna izan. Langileren batek eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badu, enpresak euskara gaitasun hori egiaztatua duen beste langile bat proposatuko du 3 lan eguneko epean gehienez ere, zerbitzuaren enpresa esleipenduna izan ahal izateko. Epe horretan euskara gaitasun maila egiaztatua duen beste langilerik aurkezten ez badu, esleipendun izateko proposatutako enpresa ezin izango da esleipenduna izan. Horrelakorik gertatuz gero, Udalak lehiaketaren zerrendan 2. geratu den lizitatzaileren euskara gaitasuna baloratuko du. Eta horrela hurrenez hurren.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago enpresa esleipendunak langileren bat aldatuz gero edo zerbitzua emateko pertsona berririk kontratatzeko asmorik izanez gero, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Langile aldaketa egiten den guztietan enpresak Udalari jakinaraziko dizkio langile berriaren izen-abizenak eta horrek egiaztatutako euskara gaitasun maila. Enpresak Udalaren aldeko txostena beharko du langile berria lanean hasi aurretik.

a2) Subrogatuta dauden langileen euskara konpetentziari buruz

Zerbitzua emateko subrogatutako langileak egonez gero eta langile horiek ez badute zerbitzurako eskatutako euskara konpetentzia maila, enpresa esleipendunak herritarrei euskarazko arreta bermatzeko plana egingo du. Alegia, maila hori lortzeko formazio plana prestatuko du, eta langile subrogatu horiei aukera emango die euskara konpetentzia maila eskura dezaten. Enpresa esleipendunak formazioa prestatzeko argibiderik behar izanez gero, Euskara Zerbitzuarekin jarriko da harremanetan. Enpresa esleipendunak hartuko luke bere gain formazioa horren kostua. Kontratuaren objektuan eta zerbitzuaren deskribapenean zehaztutako euskararen garrantziaren arabera eta kontratatu nahi den zerbitzuaren hizkuntza-helburu espezifikoen arabera, langileek zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dute; langileek bi hizkuntza ofizialetan zerbitzua emateko gaitasun maila egokia eskuratzeko formazioa teknikotzat joko da; beraz, eskatutako konpetentzia maila eskuratzeko formazio-plana enpresa esleipendunak langileen urteko formazioa teknikorako planean jasoko du.

Bestalde, enpresa esleipendunak langile berri nahiz subrogatuen urteko formazioa teknikorako planean jasoko ditu hizkuntzen kudeaketa hobetzeko antola daitezkeen ikastaro eta saioak ere.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

b1) Hizkuntza paisaia

Idatzia

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak jarduera egingo duen tokian jarriko dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko ditu ondorengo kasu hauetan:

- Hitzek euskaraz eta espainieraz antzeko grafia dutenean
- Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean
- Oso zabalduak dauden hitzetan

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean eta beste hizkuntza batzuk erabili behar badira, lehentasuna izango du euskarak, betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.

Enpresa esleipendunaren langileek jantzietan identifikatzeko eramango dituzten bereizgarriak euskaraz izango dira.

Musika

Jardueran musika erabili behar denean, ezinbestekoa izango da euskal musika tartekatzea.

b2) Enpresa esleipendunak emango dituen ikastaroen nahiz jardueren hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunak Udalak zehaztutako hizkuntzan egingo ditu ikastaroak nahiz jarduera guztiak.

- 16 urtetik beherakoei zuzendutako ikastaroak nahiz jarduerak euskaraz izango dira.
- 16 urtetik goragokoei zuzendutako ikastaroak nahiz jarduerak euskaraz, euskaraz eta espainieraz edo nagusiki euskaraz izango dira. Udalak erabakiko du ikastaro nahiz jarduera bakoitzaren hizkuntza. Eskaintza hizkuntza edozein delarik ere, jardueretako parte-hartzaile guztiek euskaraz ulertzen badute, ikastaroa nahiz jarduera euskaraz izango da.

Enpresa esleipenduna arduratuko da ikastaroen nahiz jardueren hizkuntza kudeaketa egiteaz: besteak beste, enpresak helaraziko dizkie zerbitzua emango duten langileei Udalak jarritako hizkuntzazko jarraibideak. Horrezaz gain, Udalak erabakitzen badu euskararen erabilera datuak behar dituela enpresak eman egin beharko ditu. Hizkuntza kudeaketa horren jarraipena egingo du Euskara Zerbitzuak.

b3) Herritarrekin erabiliko den hizkuntzari buruz

Hernaniko Udalak onartutako irizpideei jarraituz, herritar euskaldunekiko ahozko harremana —lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan...— nahiz idatzizko harremana —inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak...— euskaraz izango da. Bereziki zainduko da harreman hizkuntza adingabeekin eta gazteekin.

Euskaraz ulertzen ez duten herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanean lehentasuna izango du euskarak.

Herritarrak, norbanako gisa, edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Herritar erdaldunekiko idatzizko harremanean, euskarari emango zaio lehentasuna.

b4) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak, memoriak, proposamenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Horrezaz gain, Udalak enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren espainierazko laburpena edo itzulpena eskatu ahal izango dio, beharren arabera. Ondorioz, enpresa esleipendunak Udalarekin harremanetan aritzeko pertsona elebiduna izendatuko du. Eta Euskara Zerbitzuak jarraipena egingo dio behin zerbitzua esleituta.

c) Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz

Kontratazioa sustatu duen udal lansailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzua emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake. Sektore Publikoko Legearen 192. artikuluari jarraituz. Behin eta berriz urratzeak, berriz, kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluari jarraituz.

5.3 eranskina

Horniketa kontratuetarako hizkuntza baldintzak

Enpresa esleipendunak, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

1) Erakundearen irudia

- Enpresa esleipendunak euskaraz jarriko ditu erakundea identifikatzeko elementu grafikoak —ibilgailuen errotulazioan, poltsetan, jantzietan...—.
- Errotulu, seinale, ohar, kartel eta komunikazio orokorrak jarriz gero, horiek euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:

  -Hitzek euskaraz eta espainieraz antzeko grafia dutenean
  -Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean
  -Oso zabalduak dauden hitzetan

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean eta beste hizkuntza batzuk erabili behar badira, lehentasuna izango du euskarak, betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.

2) Enpresa esleipendunak euskaraz eskainiko ditu erabilera eskuliburua, softwareko testuzko eta soinuzko interfazeak —igogailuetan...— eta gainerako dokumentazioa.

3) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, posta elektronikoak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Horrezaz gain, Udalak enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren espainierazko laburpena edo itzulpena eskatu ahal izango dio, beharren arabera. Ondorioz, enpresa esleipenak Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izango da.

* Horniketa enpresa Erkidegoan ez badago:

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko idatziko harremanak —fakturak, posta elektronikoak...—Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz. Udalak enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren espainierazko laburpena edo itzulpena eskatu ahal izango dio, beharren arabera. Ahozko harremanak —bilerak, kontsultak...— euskaraz izatea litzateke desiragarria. Ondorioz, enpresa esleipendunak lehenetsiko du Udalarekin harremanetan aritzeko izendatuko duen pertsona elebiduna izatea.

4) Hizkuntza baldintzen jarraipenari buruz

Kontratazioa sustatu duen udal lan-sailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

5.4 eranskina

Obra kontratuetarako hizkuntza baldintzak

1) Hizkuntza paisaia: errotulazio behin-behinekoa eta finkoa

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak **obra egiten ari den momentuan** jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak; eta, **behin obra amaituta,** instalazioetan barruan nahiz kanpoan jarriko den **errotulazio finkoa** — koadro elektrikoen barruko errotulazioa; su-itzalgailuetako eta alarmari buruzko testuak; igogailurik balego, igogailuak emandako mezuak; eta, gelak, aretoak, komunak... izendatzeko errotulazioa — euskaraz idatziko da obra ikastetxe batean edo udal eraikin batean bada —herritarrak obra eremutik pasatzen ez badira—.

Gainerakoetan euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:

- Hitzek euskaraz eta espainieraz antzeko grafia dutenean
- Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean
- Oso zabalduak dauden hitzetan

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean eta beste hizkuntza batzuk erabili behar badira, lehentasuna izango du euskarak, betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.

2) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, posta elektronikoak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izateko ahalegina egingo du enpresak, hau da, ahal den guztietan euskaraz izango dira. Horrezaz gain, gutxienez, zuinketa akta eta obra harreraren akta euskaraz entregatuko ditu; eta obra txostena euskaraz izatea lehenetsiko da. Ondorioz, lehenetsiko du Udalarekin harremanetan aritzeko izendutako pertsona elebiduna izatea. Udalak jarraipena egingo dio behin zerbitzua esleituta.

Proiektuen idazketarako hizkuntza baldintzak

1) Kontratuaren xede den dokumentazioaren hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunak euskaraz entregatuko ditu aurrekontuaren laburpena eta planoetako karatulak, gutxienez. Proiektuaren memoriaren laburpena eginez gero, euskaraz entregatuko du.

2) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, posta elektronikoak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izateko ahalegina egingo du enpresak, hau da, ahal den guztietan euskaraz izango dira. Horrezaz gain, Udalak enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren espainierazko laburpena edo itzulpena eskatu ahal izango dio, beharren arabera. Ondorioz, lehenetsiko du Udalarekin harremanetan aritzeko izendutako pertsona elebiduna izatea.

Obra zuzendaritza bakarrik kontratatzeko hizkuntza baldintzak

1) Obra zuzendariaren euskara gaitasun mailari buruz

Obra zuzendaritza osatuko duen lantaldean bat gutxienez elebiduna izango da. Elebiduntzat hartuko da Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B2 pareko komunikazio-gaitasun maila duena, hori baita zereginak betetzeko behar den gutxieneko euskara gaitasun maila. Maila hori erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta egiaztatzeko aukera izango da; eta, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango ditu erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoa egiaztatzen duten dokumentuak. Udalak jarraipena egingo dio behin zerbitzua esleituta.

2) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, posta elektronikoak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izateko ahalegina egingo du enpresak, hau da, ahal den guztietan euskaraz izango dira. Horrezaz gain, Udalak enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren espainierazko laburpena edo itzulpena eskatu ahal izango dio, beharren arabera. Ondorioz, lehenetsiko du Udalarekin harremanetan aritzeko izendutako pertsona elebiduna izatea. Udalak jarraipena egingo dio behin zerbitzua esleituta.

Hirigintza-dokumentuen entregarako hizkuntza baldintzak

1) Aurkeztu beharreko dokumentazioari buruz

Udalean aurkeztu behar diren hirigintza-dokumentu guztiak eta horien eranskin eta azterketa osagarriak —genero azterketa, ingurumen azterketa, etab.—, xehetasun azterketak barne, elebitan aurkeztu beharko dira, izan Udalak esleituak, izan eragile pribatuek aurkeztuak. Elebitan aurkeztuko beharko dira Udalak onartu eta jendaurrean jarri behar dituen dokumentu guztiak, hasierako onarpena izan, behin behinekoa, behin betikoa edo argitaratzeko testu bateratua.

2) Enpresaren eta Udalaren arteko harreman hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, posta elektronikoak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izateko ahalegina egingo du enpresak, hau da, ahal den guztietan euskaraz izango dira. Era berean, hirigintza-dokumentuaren izapideak eskatuta, herritarrekin parte-hartze prozesuak egin behar badira, horiek euskaraz egin beharko dira, edo elebitan. Horrezaz gain, Udalak enpresa esleipendunari idatzizko dokumentazioaren espainierazko laburpena edo itzulpena eskatu ahal izango dio, beharren arabera. Ondorioz, lehenetsiko du Udalarekin harremanetan aritzeko izendutako pertsona elebiduna izatea.

5.5 eranskina

Dirulaguntza eta hitzarmenetarako irizpideak

Helburua da Udalaren eta elkarteen arteko harreman hizkuntzan eragitea, eta elkarteek euskararen aldeko hautua egitera animatzea. Udalak dirulaguntza eskatuko duten elkarteak gonbidatuko ditu euskara hutsezko eskabide ofiziala erabiltzera.

Elkarteek entregatuko du dirulaguntza oinarrietako hizkuntza irizpideen betetze maila egiaztatzen duen agiria.

Hizkuntza irizpideak hauek izango dira:

a) Diruz lagundutako jarduera adingabeei edo gazteei zuzendua denean —ikastaroak, antzezlanak, ipuin kontaketak, pailazoak, entrenamenduak, bilerak...— jarduera euskaraz izango da, ahoz eta idatziz.

b) Jarduera herritar orori zuzendua denean, euskaraz egitea baloratuko da.

c) Nolanahi ere, kasu guztietan **betebeharra** izango da:

- **Idatzizko komunikazioa** —egitarauak, kartelak, publizitatea eta jarduera egiteko espazio publikoa erabili behar izanez gero, bertan jarritako idatziak barne— euskaraz izatea. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, lehentasuna izango du euskarak.
- **Ahozko komunikazioa** —jardueraren aurkezpena, megafonia..— euskaraz izatea. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntza batzuk erabili behar badira, lehentasuna izango du euskarak.

d) Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

e) Euskaraz funtzionatzeko konpromisoa hartzea baloratu dezake Udalak.

f) Dirulaguntza jasotzeko oinarrietan eta hitzarmenetan hizkuntza klausulak txertatzeaz gain euskarazko testuari lehentasuna nola eman jasoko da.

5.6 eranskina

Herritarrekin egingo diren jardueretarako irizpideak

Euskarazko saioak

Udalak ahalegina egingo du jendaurreko saioetarako hizlari euskaldunak topatzeko, gaia zeinahi izanik ere, betiere hizlariaren egokitasuna eta edukiaren kalitatea zainduz.

Arnasgune izendatutako auzoetan, saioak euskaraz izango dira, salbuespenak salbuespen.

Udalak antolatuko dituen ekitaldi, hitzaldi, mahai-inguru, jardunaldi, ikastaro eta erakusketa, parte-hartze prozesuak, aurkezpenak... euskaraz izango dira herritar multzo euskaldunei zuzenduak direnean. Parte-hartzaileak adinez nagusiak direnean eta euskaraz emandako azalpenak ulertzeko gai direnean jarduera euskaraz izango da. Deialdian zehaztu egingo da saioa euskaraz egingo dela.

Ekitaldi publiko horiei lotutako idatzizko euskarriak, kartelak, izen-emate orriak, balorazio orriak nahiz bestelakoak euskaraz egongo dira.

Parte-hartzaileren batek ulertu bai, baina euskaraz hitz egiteko nahikoa maila ez badu, galdera beste hizkuntza egiteko aukera izango du, baina euskaraz erantzungo zaio —euskaraz emandako azalpena ulertzen duelako—.

Beharrezkoa denean, momentu puntual batean eman ahalko da azalpena espainieraz —norbaitek zerbait ez badu euskaraz ongi edo dena ulertu—.

Ekitaldia antolatu duen udal lan-sailaren arduradunak jarraipena egingo du hizkuntza irizpideak bete diren egiaztatzeko.

Saio elebidunak

Ekitaldian, talde berean euskaraz dakitenak eta euskaraz ulertzen ez dutenak badaude, ekitaldia antolatu duen sailak baliabideak jarriko ditu herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko. Horretarako, Euskara Zerbitzuan eskatuko du aholkularitza eta honek emango dizkio jarraibideak. Aztertuko da itzulpen maileta erabilita edo xuxurlari batek lagunduta bermatu ahal den komunikazioa.

Ekitaldi publiko horiei lotutako idatzizko euskarriak, kartelak, izen-emate orriak, balorazio orriak nahiz bestelakoak gutxienez euskaraz egongo dira. Elebidun izatekotan, euskarak lehentasuna izango du.

Izen-emate orrietan txertatuko da parte-hartzailearen euskara gaitasun mailaren datua jasotzeko eremua.

Ekitaldia antolatu duen udal lan-sailaren arduradunak jarraipena egingo du hizkuntza irizpideak bete diren egiaztatzeko.

- Euskaraz emandako azalpenak ulertzen ez dutenak bat edo bi badira:
  - Hasierako eta amaierako agurrak euskaraz izango dira.
  - Azalpenak nagusiki euskaraz emango dira, eta, laburpena edo kontzeptu batzuk beste hizkuntza batean azalduko dira.
  - Euskarriak: Power-pointa/idatzizko laburpena beste hizkuntza batean izan ahalko da —euskaraz emandako azalpena ulertzen ez dutenentzat lagungarria izango da; eta, saioa euskaraz izatea ahalbideratuko du—.

Garrantzitsua da adieraztea ez dela euskara teknikoa erabiliko; hiztegi, terminologia eta esaldi ulerterrazak erabiliko dira. Saioa gidatuko duenak euskararekiko portaera proaktiboa izango du.

- Euskaraz ulertzen ez dutenen kopurua handia bada, beste hizkuntzek leku handiagoa hartuko dute.
  - Hasierako eta amaierako agurrak euskaraz izango dira.
  - Azalpen nagusiak beste hizkuntza batean emango dira, baina tartekatu egingo da esaldi/hitzen bat euskaraz. Neurriak hartu behar dira azalpen guztia beste hizkuntza batean izan ez dadin.
  - Euskarriak: Power-pointa jartzen bada, euskaraz jarriko da.
  - Parte-hartzaileek galderak euskaraz nahiz beste hizkuntza batean egiteko aukera izango dute. Erantzuna galderaren hizkuntzan emango da. Euskaraz emandako erantzunaren itzulpena eman behar den baloratuko da.
  - Lanerako taldeak egin behar izanez gero, parte-hartzaileen euskara ezagutza hartuko da kontuan taldeak osatzeko garaian. Talde bakoitzak aukeratutako hizkuntzan konpartituko du bere lana plenarioan.

Erdarazko saioak

Erdara nagusi duten saioak antolatzean, hizlariaren ezaugarriengatik edo euskarazko saioaren bikoizketa modura, bermatuko da euskarak presentzia izango duela, agurrak eta aurkezpenak euskaraz eginez. Parte-hartzaileei banatzeko saioaren euskarazko laburpena prestatuko da.

Saioa ofiziala ez den hizkuntza batean denean, aldi bereko itzulpena bermatuko da, eta, kasu horretan, gutxienez euskararako itzulpena eskainiko da. Deialdian zehaztu egingo da saioan zein hizkuntzatan egingo diren hitzartzeak eta zer itzulpen eskainiko diren.

Ekitaldia antolatu duen udal sailaren ardura izango da jarduerarako hizkuntza jarraibideen betetze mailari jarraipena egitea.

5.7 eranskina

Bide seinaleetako eta kale errotulaziorako hizkuntza irizpideak

Eremua	Irizpidea	Adibideak
Trafiko seinaleetan derrigortasunak edo/eta debekuak	Euskaraz eta espainieraz, euskarari lehentasuna emanda eta espainierazkoa grisez jarrita	Jabeak izan ezik Excepto plaza en propiedad
		Bertakoak izan ezik Excepto residentes
		Jabeentzat Solo con plaza en propiedad
		Baimendutako ibilgailuak izan ezik Excepto vehículos autorizados
		Zerbitzu publikoak izan ezik Excepto servicios públicos
		Zamalanak izan ezik Excepto carga y descarga
Norabideak edo leku/zerbitzuak	Euskaraz piktogramaz lagundurik	Udaletxea
		Hilerria
		Igogailua
		Osasun zentroa
		Kiroldegia
		Institutua
		Taxiak (baita lurrean ere)
		Komunak
		Busa (baita lurrean ere)
Erregistro tapak	Euskaraz	Euri urak
		Ur hartunea
		Ur zikinak
		Suhiltzaileak
		Edateko ura
		Argiteria
Oinezkoei aipamena	Euskaraz piktogramaz lagundurik	Oinezkoen gunea
		Oinezkoek lehentasuna
30 gunea	Euskaraz eta espainieraz euskarari lehentasuna emanda	

Eremua	Irizpidea	Adibideak
Aparkalekuak	P + testua euskaraz	P motoak Motoak (baita lurrean ere)
		P ibilgailuak
		P furgonetak
		P ezinduak
		P bertakoak
		P osasun zentroa
Hondakinen ontziak	Euskaraz	Papera
		Organikoa
		Errefusa
		Ontzi arinak
Zintak	Euskaraz	Udaltzaingoa
		Zerbitzu Publikoak
Testua luzea duten errotuluak (osteguneko azoka, aparkaleku mugatuak, garbigune ibiltaria...)	Euskaraz eta espainieraz euskarari lehentasuna emanda. Espainierazkoa QR kodean txertatuta, derrigortasuna edo debekua ez dagoenean	
Parkeak (haur parkeak, txakur parkeak...)	Euskaraz, piktogramaz lagundurik. Espainieraz esaldiren bat jarri behar izanez gero, QR kodea txertatuta	

Euskara Zerbitzuak hizkuntza aholkularitza eskainiko du hizkuntza irizpideen inguruko zalantzak argitzeko nahiz errotuluan, bide seinalean... jarriko den testua zuzena izango dela bermatzeko.